

KANALAK



Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak.

Lehenik eta behin, gure proiektua aurkeztuko dugu lehiaketa publikoan, honekin lortu nahi duguna, estatuaren finantzaketa lortzea da. Hau gure diru-sarreraren iturrietako bat izango da, beste bezero eta inbertsore batzuekin batera.

Horrez gain, hainbat hitzaldi eta bilera antolatuko ditugu gure helburuak eta asmoak modu argi eta zehatz batean azaltzeko, eta horrela interes gehiago sortuko dugu gure produktuaren inguruan.

Era berean, "Aztí" elkarteari proposamen bat egingo diogu, itsasoko ingurunea eta elikadura arloko espezialista dena. "Aztí" aurrerapen teknologikoak eta balio erantsi duten produktuak eskaintzen ditu, zientzia eta ikerketan oinarrituta. Haiekin lan egiten, gure ideia hobetzeko eta aukera desberdinak bilatzeko aukera izango dugu.

Gure enpresa aurrera egin ahala, webgune bat sortuko dugu, non jendeak gure proiektuari buruzko informazioa lor dezakeen eta, era berean, gure proiektuan laguntzeko aukera izango duten. Lagundu ahal dugutela esaten dugu, ONG bat sortu nahi dugulako, dirua biltzeko helburuarekin. Diru iturri nagusia ez bada ere, laguntza txiki bat izango dugu eta, aldi berean, inguruko jendea ingurumen arazoaren larritasunaz kontzientziaztea lortuko dugu.

Euskadin gure proiektua finkatu eta aurrera egin ahala, beste erkidego batzuekin, elkarteekin eta erakundeekin hitz egingo dugu gure produktua beste leku batzuetan ere erabiltzeko. Lehenik eta behin, Euskal Herrian zabaltzen hasiko gara, eta, nahiz eta ez dakigun posible izango den, dena ondo badoa, mundu osoan zabaltzeko aukera ere badagoen bilatuko dugu, horrela globalki kutsadura murrizten lagunduz, Euskadin baino bakarrik izan beharrean.

Azkenik, proiektua martxan dagoenean, informazio puntu bat jarriko dugu, jendeak ingurumen arazoari buruz gehiago jakin eta gure proiektuari buruz informazioa eduki ahal izateko. Horrez gain, lehen aipatu dugun bezala, laguntzeko aukera izango dute.